

EUSKARA: GASTEIZKO LEGBILTZARRETIK PLAZARA

Euskal Parlamentuaren ekimenez, *Euskara jalgi hadi plazara* lemapean, erakusketa bat antolatu da Legebiltzarraren egoitzan, aurtengo otsailaren 2tik martxoaren azkenera arte iraungo duena, Euskaltzaindiaren erabateko lankidetzarekin. Hor Bernard Etxepare-ren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren ale originala erakutsiko da lehenengo aldiz, gure Legebiltzarraren eskariz Parisko gobernuak frantses hiriburutik lehenengo aldiz ateratzen utzi duena. Euskaltzaindiak, bere aldetik, Joanes Leizarragaren 1571eko *Testamentu Berria*, bere bibliotekan gordetzen zuen alean, erakusgai jarri du. Horiez gainera, beste idazle, itzultzaile eta apologista batzuen liburu originalak daude.

Erakusketa horretan alde batetik, Bibliaren itzulpen eta hedatze faseak azalduko dira Europaren ekialde eta mendebalean zehar. Modu berean, liburugintzaren zabaltze eta herriaganatzean **Joannes Gutenberg**en asmaketak izandako eragina erakusten da, moldiztegiak liburuen prezioa erabat jaitsarazi zuen eta. Jende apalen hizkuntzen bultzadan, bestalde, Italiako Pizkundeak izandako eragina azpimarratua da, latina ez bezalako mintzairen aldeko giroa sortarazi zuen eta. Horrek bultzatu zuen, zalantzarik ez, gure **Bernart Etxepare** bere herriko hizkuntzaz, euskaraz, bertso batzuk publikatzera, *Linguae Vasconum Primitiae* 'Euskaldunen hizkuntzaren hasikinak' izeneko liburuan, euskara munduko gainerako hizkuntzak bezain idazgarria zela frogatzeko.

Mende berean **Martin Luther** fraide alemanaren aldarri eta desafioari jarraituz, Jesu Kristoren mezua jende apalengana helarazteko, Jainkoaren hitza latina ez bezalako hizkuntzetara itzultzen hasi ziren, orduko Eliza katolikoaren iritziaren kontra, Erromak Biblia latinez mantendu nahi baitzuen, horrela haren mezua heresiatik kanpo gordeko zuelakoan. Herri-hizkuntzetara liburu santuak. itzultzeko joera horrek Europako mintzaira askoren literaturen hasiera markatu zuen, eta Euskal Herrian ere bere fruituak utzi zituen.

Erreformaren garai berean, **Joana Albret**, Nafarroako erregina, alde batetik Erromako Elizak zerabilen dogmakeriaren aurka ageri zen. Bestetik, bere Nafarroako erresumaren hegoaldea galtzearen errua aita santuari egozten zion, auzi horretan Fernando Katolikoa Aragoiko erregearen alde agertua zelako. Ondorioz, katolikotasunari uko egin eta Nafarroan protestantismo kalbinista hedatzeko, **Joanes Leizarragari** *Testamentu Berria* euskaraz itzultzea erabaki zuen, 1571an publikatu zena.

Protestanteen erreformari erantzun nahirik, Elizak Trentoko kontzilioa bildu zuen (1545-1563) eta hor, aurreko irizpidearen aurka, fedearen oinarriak

irakasteko, jende xehearen hizkuntzak erabiltzea onartu zen. Horrela sortu ziren euskarazko lehenengo katiximak, bai eta debozio-liburuak ere: **Betolatzaren** doktrina (1596), Duke de Richelieu kardinalaren *Guiristinoaren dotrina* **Silvain Pouvreaux** frantsesetik itzulia (1656) Pedro Axularren **Gero** (1643), etab.

Ez dira gutxiestekoak, Pizkunde giro horretan, **Andres Pozak** (*De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas*, 1587) edo **Baltasar Etxabe** (*Discurso de la antigüedad de la lengua cantabra bascongada*, 1607) bezalako apologisten lanak, edota **Arnaut Oihenarte** abokatu eta zuberotarrak idatziriko Euskal Historia ongi dokumentatua (*Notitia utriusque Vasconiae*, 1638), Nafarroako erresumaren ardatzaren inguruan osatua.

Aretoaren hormetan mapak, egile batzuen erretratuak eta berorien liburuen azalak jarri dira, agertu nahi den garai eta giro hau laburki erakusten duen triptiko batekin. Aldi berean, grabazio bidez ahozko azalpena ere eskaintzen da euskaraz eta erdaraz, aldizka musika emanaldiak ere tartekatuz. Asmoa dago, halaber, gai berean hitzaldi batzuk emateko.

Xabier Kintana